# KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

2024ko apirilaren 30a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA

1. Esparru juridikoa
2. Komunikazio-betebeharrak
3. Komunikazio-betebeharren aplikazioa

# 1. ESPARRU JURIDIKOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 34. artikulua, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena

Espainiaren eta EBren arteko finantzaketa-akordioaren 10. artikulua. Informazio argitaratzea, Europar Batasunaren finantzaketa ikusgai egitea eta erabiltzeko eskubidea.

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua.

"2021-2027 EBren finantzaketa-programetarako komunikazio eta ikusgarritasun arauak - Estatu kideentzako orientabideak" aplikazio-eskuliburua, Europako Batzordeak egina.

https://commission.europa.eu/funding-tenders/managing-your-project/communicating-and-raising-eu-visibility_en

Aplikatu beharreko araudia

→ Erakunde erabakitzaile eta/edo betearazle bakoitzak jarraibide propioak ezar ditzake komunikazio-materialak garatzeko.

# 1. ESPARRU JURIDIKOA

- Ezinbestekoa da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen hartzaile guztiek komunikazio-betebeharrak betetzen dituztela bermatzea.

- Helburua da bermatzea Europar Batasunaren finantzaketaren azken onuradunek, SEMen esparruan, Batasunaren finantzaketaren jatorria aitor dezatela eta hura ikusgai dagoela berma dezatela, SEMen Erregelamenduaren 34.2 artikuluak adierazten duen bezala.

- Komunikazio betebeharrak ez betetzeak, bai mugarriak eta helburuak betetzeari dagokionez, bai beste edozein elementuri dagokionez, itzulketa-prozedura hastea ekar lezake, 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 eta 5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Garrantzitsua da kudeatzaile eta onuradun bakoitzak komunikazio arloan bere deialdia arautzen duten oinarri espezifikoei arreta zehatza ematea, oinarrizko nahitaezko elementuei eutsiz programa bakoitzaren kasuistikara egokitzen diren komunikazio-betebeharrak nola aplikatu jakiteko.

# 2. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK

## Requisitos mínimos obligatorios de comunicación y visibilidad

- Plana gauzatzearekin lotutako komunikazio-jarduketek Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logo ofiziala izango dute, eta, modu zuzen eta nabarmenean, EBren enblema, "Europar Batasunak finantzatuta - NextGenerationEU" finantzaketa-adierazpenarekin.

- Europar Batasunaren enblema, gutxienez, beste logotipoak bezain nabarmen eta agerian erakutsi beharko da.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

- Komunikazio betebehar espezifikoak dituzten programen kasuan, oinarri arautzaileetan edo aplikatzekoa den tresna juridikoan xedatutakoa hartuko da kontuan ere.

- Material grafiko ofizialak deskargatzea gomendatzen da.

# 2. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK

- Gogorarazten da nahitaezkoa dela Ogasun Ministerioko Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak egindako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren Kudeatzaile eta Onuradunentzako Komunikazio Eskuliburuko jarraibideak betetzea (oso garrantzitsua da webgunean agertzen den azken eskuliburuko jarraibideak betetzea).
- Konferentzia sektorialean ezar daitezkeen baldintza gehigarriak ere nahitaez bete beharrekoak dira.
- Gogorarazten da organo kudeatzaileen betebeharra dela onuradunek egiten dutena gainbegiratzea eta egiten diren komunikazio-neurrien ebidentziak biltzea, hala nola argazkiak edo pantaila-argazkiak.
- SEEPren komunikazio-eskuliburuaz gain, Eusko Jaurlaritzak Identitate Bisualaren Eskuliburua dauka. SEMrekin lotutako komunikazio-neurri guztiek eskuliburu honetan ezarritakoa bete behar dute, bai hizkuntza-maila, bai logotipo-mailan.

# 3. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARREN APLIKAZIOA

## Deialdiak, lizitazioak, hitzarmenak eta gainerako tresna juridikoak

- Deialdi, lizitazio, hitzarmen eta garatzen diren gainerako tresna juridiko guztietan, honako adierazpen hau sartu behar da **testu-formatuan**, bai goiburuan, bai garapen-gorputzean:

  *" Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU"*

- Dokumentuen azalean edo goiburuan **logotipoak** erabiltzea ere gomendatzen da.

- **Fakturek** eta **Interes-gatazka ezaren deklarazioek** ez dituzte logotipoak eraman behar.

# 3. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARREN APLIKAZIOA

## Kartelak eta Plakak

**Ezaugarri orokorrak** →

KOKAPENA: ahalik eta leku ikusgarriena.

TAMAINA: zentzuzkoa eta proportzionatua, gutxieneko tamainarik gabea.

LOGOAK: kartelaren edo plakaren goiko edo beheko partean, gutxienez kartelaren edo plakaren azaleraren % 25a okupatuz.

TIPOGRAFIA: Gotham (Helvética).

**Gomendatutako edukia** →

- Onuradunaren izena
- Proiektuaren izena
- Epea (aukerakoa)
- Aurrekontua (aukerakoa) (optativo)
- Logoak

# 3. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARREN APLIKAZIOA

## Kartelak eta Plakak

### Aldi baterako kartelak, hesiak edo olanak

**KASUAK**

- objetu fisiko baten erosketa
- azpiegitura baten finantzaketa
- Eraikuntza eta birgaitze lanak

**Exekuzio osoan**, tamaina handiko (A3 edo handiagoa) aldi baterako kartel bat jarriko da, **jarduketen kokaleku berean**.

### Kartel iraunkorrak

**Obra amaitutakoan**, kartel iraunkor bat jarriko da (plaka edo antzekoa, A3 neurrikoa edo handiagoa), **amaitu eta 3 hilabeteko epean, eta gutxienez 4 urterako**.

## Publizitate-kanpainak

- Publizitate-kanpainek, gutxienez, EBren enblema, SEEPren logoa eta testua **erakutsi** beharko dituzte:

  ***“Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU”***

- **Lokutuan** honako mezu hau ere sartu behar da:

  ***“Europar Batasunak finantzatua – Next Generation – Suspertze Plana – eskudun Ministerioa”***

  Edo aukera laburrago bat lokuziotik dagokion ministerioaren izena kenduta.

# 3. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARREN APLIKAZIOA

## Beste komunikazio tresnak

Komunikazio-tresnen beste adibide batzuk ikusteko, Kudeatzaile eta Onuradunentzako Komunikazio Eskuliburua kontsultatu.



# ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA